

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4468

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 29koa, Hezkuntza sailburuordearena, zeinaren bidez aukeratzen baitira EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeak, jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan.

Hezkuntzako sailburuaren 2018ko apirilaren 25eko Aginduak egindako deialdian oinarrituta, eta Hautaketa-batzordeak izapidetutako espedienteak aztertuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasotzen diren itunpeko ikastetxeak aukeratzea, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren esparruan jarduera-proiektuak egin ditzaten, 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako.

Bigarrena.– Hautatutako ikastetxe bakoitzari bi mila euro (2.000) esleituko zaizkio irakasleen prestakuntza-jardueren gastuei, eskola-komunitatearen gastuei eta proiektuaren koordinazio- eta zabalkunde-ekintzen gastuei aurre egiteko, proiektuak hartu behar dituen hiru ikasturteetatik lehenengoan. Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa -diru-laguntzaren % 60- esleitutako diru-laguntza onartu bezain laster egingo da.

b) Gainerakoa – diru-laguntza osoaren % 40a– «Hezkidetzeta – Diru-laguntzaren justifikazioa» agiria aurkeztu ondoren ordainduko da; 2019ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar da agiri hori, behar bezala beteta.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hila-beteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 29a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN MAITE ALONSO ARANA.

2018ko irailaren 10a, astelehena

ERANSKINA

Kodea	Ikastetxea	Puntuazioa
010173	CPEIPS Assa Ikastola HLBHIP	8
010222	CPEIPS Nazareth HLBHIP	8,5
010244	CPEIPS Paula Montal HLBHIP	6,5
010251	CPEIPS Pedagógica San Prudencio S.C.L. HLBHIP	6,5
012339	CPEIP Irura Ikastola HLHIP	6,25
012381	CPEIPS Zubimusu Ikastola-Villabona HLBHIP	7,25
012411	CPEIPS La Salle-San Jose HLBHIP	7,75
012416	CPES Ntra. Sra. De Azitain BHIP	7
012418	CPEIP La Salle-Isasi HLHIP	6,5
014586	CPEIPS San Juan Bosco HLBHIP	6
014619	CPEIPS Ángeles Custodios HLBHIP	8,75
014637	CPEIPS El Ave María HLBHIP	6,5
014655	CPEIPS Jesús María HLBHIP	8
014704	CPES Sta. María De Artagan BHIP	7,25
014833	CPEIPS Ntra. Sra. De La Merced HLBHIP	8,5